



SASTIÑA ENTSAIO LOKAL BEZALA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

Egungo egoera kontutan hartuta, eta entsaio lokalak baldintzak betetzen ez dituela ikusita, Sastiña entsaio lokal bezala uztea erabaki da. Hau dela eta, honako arauak finkatu dira lokalaren funtzionamendurako.

Edozeinek edozein sintoma duela uste badu edota berarekin hartu-eman zuzena izan duen familiar edota lagunaren batek positiboa eman badu, etxean geratu eta osasun zerbitzuek esandakoa egin.

Gomendioak:

- Eskuak sarritan garbitu, batez ere gauzak elkar banatzen dituzueanean.
- Ahal den neurrian ondo aireztatuta izan osasun gomendioei kasu eginez.
- Distantziak mantendu
- Baten batek nahiko edo beharko balu, besteak beste, 2 metroko distantzia ezin duelako gorde *maskara jarri*
- Aurretik eta ostean desinfektatu beharko dira elkar banatzen dituzuen materialak. Horretarako papera eta desinfektatzailea Sastiñan egongo da



OHARRA: bote hau husten baldin bada berriro betetzeko udaletxera ekarri.

Maskaren erabileran inguruko araudia:

- Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuak beharrezko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteak ezartzen ditu, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko, bai eta berragerraldiei aurrea hartzeko ere, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren III. fasea gainditzeko. Zehazki, honako hau jasotzen du:
 - Maskarak nahitaez erabiltzea arautzen da sei urtetik gorako pertsonentzat.
 - Eremu publikoan, aire zabaleko gunetan eta erabilera publikoko edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan maskarak erabili beharko dira, baldin eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia gutxienez 1,5 metrokoa dela bermatu ezin bada.
 - Aurreko betebeharrak ez zaizkie eskatuko maskararen erabilerak larritu dezakeen eritasun edo arnasteko zailtasunen bat duten pertsoneri, edo, ezgaitasun edo mendekotasun egoera dela-eta, maskara kentzeko autonomiarik ez dutenei, edo maskararen erabilera bideraezina egiten duten portaera-aldaketak dituztenei.
 - Maskarak erabiltzeko betebeharra ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da, eta ehun euro arteko isunarekin zigortuko da.

Gainerako kasuetan, norberak egokien ikusten dituen neurri oro hartu ahal izango du.



Erabiltzaileen sartu irteerak:

- Eskaera egin duten taldeek bakarrik izango dute lokaleko giltza
- Normaltasunera bueltatzerakoan giltza bueltatu egin beharko da
- Sastiña erabiltzeko eskaera udaletxean egingo da eta horretarako egokitutako inprimaki bat beteko da.
- Eskaera taldekide baten izenean egingo da eta berak jasoko du giltza
- Giltza duen taldearen ardura izango da lokalaren egoera.
- Talde bakoitzak giltza bat izango du; beraien ardura izango da beti lokala itxita eta txukun uztea.
- Giltza ezin izango zaio inori utzi.
- Aldiro talde bakarra egon daiteke entsaioan.
- Taldekideak bakarrik egon daitezke lokalean.
- Entsaioen artean ordu erdiko aldea egon beharko da gutxienez.
- Orduategia: goizeko 10:00etatik gaueko 21:00ak arte.
- Bizilagunen kexak jasoko balira, udalak aukera izango du orduategiak aldatzeko, lokala denboraldi batez ixteko edo lokala berreskuratzeko.
- Baimendutako taldeek bakarrik erabili ahal izango dute.
- Sarrerako atea ITXITA egongo da
- Erretzea eta edatea debekatuta dago.
- Sarrera-irteeretan eskuak garbitu. Sarreran gel hidroalkoholkoa eta dagokion kartela egongo da.

Aramaion, 2020ko ekainaren 17an